

# Zu ere Olinpiadetako txapeldun

**Leire Cancio Orueta**  
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



L. CANCIO

Gasteizko San Viator ikastetxe 2B gela Urbasako Bioitza kanpinean.

**Atenasko Olinpiadak bukatu dira, eta kirolariak dagoeneko hartu dute etxerako bidea. Batzuk besteak baino alaiago doaz, maletan daramatzaten dominen edo errekorren arabera. Gu ere izan gaitzke olinpiadetako txapeldun. Zernola olinpiada hastear dago.**

ARMIX DAGOENENKO PISTAN DAGO, ateratzeko seinalearen zain, III. Zernola Olinpiadari hasiera emateko. Irailetik ekainera bitartean, parte hartzen duten DBH 1eko eta 2ko ikasgelek zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten probei erantzun beharko diete hiler.

Aurreko ikasturtean 92 ikasgela aritu ziren II. Zernola Olinpiadan gogotsu, eta sailkapen nagusian Gasteizko San Viator ikastetxe 2B gela izan zen txapeldun. Saria: gela osoarentzako asteburua Urbasako Bioitza kanpinean.

## Armix Urbasan

Armixek, gasteiztarrekin batera, Urbasako Bioitza kanpinean pasatu zuen asteburua. Han, paraje zoragarriez gozatzeaz gain, hainbat ekintza egin zituzten: mendian ibili ziren, altxorra topatzeko iparrorratza erabiltzen ikasi zuten eta Laminatituz-ko kobazuloan sartzeko aukera ere izan zuten.

Primeran igaro zuten denek asteburua, eta San Viator 2ko ikasleek agindu zuten ikasturte honetan gogor saiatuko zirela berriro ere.

Gainera, III. Zernola Olinpiadak hainbat berrikuntza izango ditu. Besteak beste, parte hartzen duten gela argazkiak ikusi ahalko dira, eta parte-hartzaileek elkar ezagutzeko modua izango dute olinpiaden foroan. Irailan, gainera, ikasturtea gogo biziz hasteko, itxura berria izango du [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atariak.

Gure bisitaren zain dago, beraz. Han topatuko ditugu artikulak eta kontsultarako materiala, jokoak, lagunei bidaltzeko postalak, zuek bidalitako edukiak argitaratzeko lekua, III. Zernola Olinpiada, solasean aritzeko foroak eta abar. Sartu eta ikusi...